

Itsasoaren argi-begiak

187 farok argi egiten dute Espainiako kostaldea osatzen duten 7.889 kilometroetan barrena. Horietako bat, Herkulesen Dorrea, munduan funtzionatzen jarraitzen dutenetatik zaharrena bera. Teknologia berriek distira egiten dute egun, satellite bidezko komunikazioek eta radarrek bezalaxe, baina itsasoak bere betiko argiak maite ditu, leku estrategikoetatik keinuka aritzen zaizkionak. Kostarantz egin duen itsasontziak ere horien bila ariko dira, lurra eta itsasoa mugatzen dituzten bi argiek –hiru, batzuetan– noiz kliskatuko parez pare. Faro bat zutitzen den lekuan, han izango da farozaina ere (itsas seinaleen teknikari mekanikoak deitzen diete egun). Bakardadearekin, ekaitzekin eta logabeko gauekin lotu izan da farozainaren lanbidea, erromantizismo ukitu batek ere zipiritindu izan du. Izena aldatu diete, izana ere bai, agian, baina argiak han jarraitu behar du, lehenago begitik itsasoari so.

1. Seinalea

Ontzi bat kostaldearekiko paralelo doanean, bi argi ikusiko ditu beti, elkarri txanda ematen diotela. Mezu bat bidali nahian ari dira nabigatzaileari, esanahia erraz ulertzeko moduan, gainera. Faro bakoitza zer eraikin mota den ere jakin liteke libildibeen liburuan edo Faroen liburuan begiratuz gero. 1842tik aurrera hasi ziren liburu horiek egiten, urte hartan eratu baitzuten Itsasargien Batzorde iraunkorra, eta orduz geroztik, protokolo bat ezartzen hasi ziren itsasoko argientzat. 1996az geroztik, Itsasargien Batzordeak gidatzen du lan hori; elkarte horretan, besteak beste, itsas seinaleak kudeatzeko arduradunak erakundeak biltzen dira, autonomiakoak eta tokian tokikoak.



1



2



3

2. Eraikina

Garai bateko itsasargiak zaintzen, propio hara igorritako langileak aritzen ziren. Horregatik, itsasargia etxebizitza ere bada. Eraikina estilo batekoa edo bestekoa izan daiteke (garaian garaiko joeren arabera), baina gehienek antzeko ezaugarriak dituzte: teilatu laua, zokalo handiko hormak, erlaitz irten-irtenak eta oinplano zirkularra duen dorrea; guztiaren buruan, berriz, dorretzarra, bere argi eta guzti. Etxe zut hauek hainbat gune izaten dituzte barrenean: familiarren gelak, lantegia, biltegiak eta energia zentralak. Metalezko barraskilo-eskailera bat igotzen da argien ganberaraino. Barrutik ez ezik, kanpotik ere heldu daiteke argietaraino, kristalak garbitzea ezinbestekoa baita.

3. Etxebizitza

Orain dela gutxi arte, farozainek faroan egon beharra zuten gauero-gauero, eta ekaitz egunetan ere bai; hornitzaile ofizial batek eramaten zizkien hornigai guztiak, eta ezin zuten handik alde egin. Egun, baldintzak aldatu dira, baina 43 farozainek talaia horietatik ikusten dute eguna argitzen, hantxe bizi dira. Askoz gehiago ziren lehen, baina aurrerapen teknologikoei esker, orain ez da beharrezkoa farozaina han bertan egon dadin. Kopurua, hala ere, handitu egin da azken urteetan. Izan ere, lantoki ez ezik, etxebizitza ere badira, eta hori aintzat hartzeko da (errepideak eta ibilgailuak asko hobetu dira, gainera, eta itsasargiak lehen baino hurbilago daude herriguneeta-

tik). Farozaina han egonik, arazo estruktural asko saihestu daitezke: batetik, itsasargian inor bizi ez bada, oso azkar hondatzen da, eguraldi baldintza gogor-gogorak jasan behar izaten baititu; bestetik, eraikina hutsik badago, nornahi sartzeko arriskua izaten da, eta zernahi egin dezake. Horregatik, mundu guztia ari da indar egiten dorreetan berriz farozainak egon daitezen.

4. Argia

Antzina-antzina, sua egiten zuten aire zabalean, ontziek argia ikus zezaten; gero, babestu egin zituzten su haiek, eta gainazal islatzaileak jarri zizkieten; azkenik, eraikinak egin zituzten, eta hantxe ematen zieten su ikatzari edo egurrari... lanpara asmatu



4

zuten arte. Olio lanparak izan ziren lehenik, petrolioarekin zebiltzanak gero, eta gasa lanparak ondoren. Egun, sistema guztia automatizatu dago, eta tresna fotoboltaikoak eta hibridoak –eguzkiaren edo haizearen indarrez dabilzanak– erabiltzen dituzte; lanparek, berriz, argi dioak (led-ak) dituzte, gutxi kontsumitu eta argi bera emateko. Argia handitzen duten sistema optikoak ere sofistikatuagoak dira. Garai batean, ispilu paraboliko bat jartzen zuten sugarraren atzean, eta hari esker biltzen eta jirarazten zuten argia. Orain, optiko akrilikoak eta merkurio flotagailuak erabiltzen dituzte argia indartu eta abiadura doitzeko.

5. Beste seinale batzuk

Itsasargiek lurraren lerroa non dagoen adierazten dute eta porturako sarbidea nondik doan jakinarazten dute. Itsas seinale deitzen direnekin bat egiten du faroaren argiak. Seinale horiek ere argi bidez ematen dira, eta era askotakoak izan daitezke: balizak, portuko argiak, bideratzailak, sektore argiak, buiak... Itsasontzi batek porturatzekeo maniobra hasten dituenean, baliza artean egon behar izaten du zain kostaldeko pilotua eta atoiointziak iritsi arte. Teknikariari dago ontzia portura gidatzea (esperientziak eta bidea erakusten duten argiek lagunduko dute horretan). Farozainaren ardura da argiek iluna urratuko dutela ziurtatzea... itsasoak betiko argiak maitatzen jarrai dezan. //

